



DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Okendo kalea 9

2019
Irailetik abendura

progra- mazioa

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea da gunee bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, prestakuntza jasotzeko eta gogoeta nahiz ekintzak egiteko. Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizimodua hobetzeko, eta berdintasun handiagoko gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeke helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboenak batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek batzorde guztietan har dezakete parte.

Kontuan hartu beharreko oharrak:

- **Ikastaroetan izen-ematea:** irailaren 9tik 20ra egingo da.
- Izen-ematea Internet bidez egingo da honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna
Laguntza behar baduzu izena emateko, gerturatu zaitetz Emakumeen Etxera.
- Ikastaro eta zerbitzu guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara edo tailerretara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu, edo ikastaro berrietan parte hartu, urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.

■ zaintzak ■ artibismoa ■ genero teoria ■ indarkeria
■ autonomia ■ kulturantzatasuna

TAILERRAK

Auto-zaintzak
Brikolajera
Lelo feministak estanpatu, eraldatu..
Ahanztura konjuratzen: emakumeak eta pentsamendua
Teoria feminista tailerra: “Badago generotik ateratzea”

AHALDUNTZE TALDEAK

Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak
Autodefentsa feminista
Antzerki laborategi feminista
Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea
Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea
Memoriaren zirrikituak euskal literatura garaikidean
Irakurle eskola feminista
Ventaneras -La precuela
Ventaneras
Batukada Feminista
Xakea
Ederlezi abesbatza
Klowna

ZERBITZUAK

Arreta eta bideraketa
Etxeko Langileentzako Aholkularitza
Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-hartzea
Lege aholkularitza
Gizarte aholkularitza
Norbanakoaren jabeakuntzarako gunea
Aholkularitza laguntza taldea
Biluzik mundura
Igualate Ikasketak homologatzeko kanpainak
Ordenagailu eta Internet zerbitzua

AUTO-ZAINTZAK (6 saio)

Formatzailea: Kontxi Lopez

Eguna: asteartea

Ordua: 18:00 - 20:00

Hasiera: urriak 1

Amaiera: azaroak 5

Hizkuntza: gaztelania

TAILERRAK

Tailer hauek urrian hasiko dira eta urte-amaiera baino lehen amaituko dira, bat izan ezik. Luzeenak 10 saio izango ditu.



Emakumeoi, genero sozializazioaren bitartez, besteak zaintzen erakutsi digute, baina ez geure burua modu berean zaintzen. Horrek askotan zailtasun handiak dakartza, denbora guretzat bakarrik lortzeko, bakardadean zer egin nahi dugun jakiteko (gure desio eta nahiekin bat egiten), gure emozioak (onak eta txarrak) kudeatzeko; baita beste kontu askotan ere, non askatasuna eta ahalmenak murrizten zaizkigun. Tailer honetan zailtasun horiek gutxitu nahi ditugu eta horretarako tresnak emango ditugu.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte

BRIKOLAJERA (8 saio)

Formatzailea: Carmen Melchor

Eguna: osteguna

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: urriak 3

Amaiera: azaroak 21

Hizkuntza: gaztelania

Zure etxean oinarrizko iturgintza, pintura eta apainketa konponketak egiten ikasi nahi duzu, autonomia gehiago lortzeko xedearekin?

Ba, hau da zure gunea. Inoiz ez baduzu zure etxean hobekuntza txikiak egiteko oinarrizko tresnarik erabili, hemen segurtasunez jarduten ikasiko dugu, gero, autonomia bidean, zuk zeuk aurrera egin dezazun.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte



LELO FEMINISTAK ESTANPATU, ERALDATU..

(3 saio euskaraz eta 3 gaztelaniaz)

Formatzailea: Ane Baztarrika

Eguna: asteazkena

Ordua: 18:30 - 20:30

Datak: euskaraz
urriak 6, 13, 20.

gaztelaniaz
urriak 16, 23, 30

Arropa lelo feministez beteta merkaturatzen hasi dira marka handiak gaur egun; askotan ingelesez, gure edukiak lapurtzen dituzte eta sentsazio inpersonala utzi. Horri erantzun bat eman nahian, lantegi bat proposatzen dut, non gure sormena eta ilusioa jarri ditzakegun mezu horiek geure egiteko eta, gero, soinean eraman ditzagun manifestazioetan, kontzentrazioetan edota errebindikatzeke gogoz gauden uneetan. Saio hauen helburua da geure burua jabetzea transmititu nahi ditugun mezuez eta erabakitzea zer eta nondik diogun hori, ekintza bera eskuz latzen dugun bitartean; eta horrez gain, soinean daramagunarekin zuzenean konektatzea.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte



AHANZURA KONJURATZEN: EMAKUMEA ET PENTSAMENDUA

(10 saio)

Formatzailea: Marisa Hurtado

Eguna: astelehena
(hamabostean
behin)

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: urriak 7

Amaiera: martxoak 16

Hizkuntza: gaztelania

Tailer honetan ibilbide bat egingo dugu; zehazki, iraganeko eta gaur egungo emakumeek sortu eta ezkutatua izan den pentsamenduaren inguruko ibilbidea.

Garai eta testuinguru desberdinen arteko bidaia bat egingo dugu, zeinetan emakume horiek ezarritako ordena aldatu baitzuten, pentsatuz, esanez, idatziz, eta beraiei zuzenduta ez zegoena eginez. Pentsamendu ortodoxoak daukan begirada partziala alde batera utzi nahi duten emakumeei zuzendua, zeinak emakumeek sortutako ondarea ezkutatu nahi duen. Tailer honetan, azalpen teorikoa eztabaidarekin uztartuko da, denon arteko hausnarketarekin batera.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte



TEORIA FEMINISTA TAILERRA: "BADAGO GENEROTIK ATERATZEA"

(8 saio)

Formatzailea: Irantzu Varela

Eguna: ostirala

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: urriak 11

Amaiera: abenduak 13

Hizkuntza: gaztelania

Tailer honek azkeneko mendeko feminismoaren proposamenak ezagutzeko du helburu, proposamen teorikoak landuz; baita praktika paradigmaticoak eta abangoardistak ere. Halaber, feminismora bizipenetatik etortzen diren emakumeak teorikoagoak diren proposamenetara hurbildu nahi ditu, konplexuagoak eta abstraktuagoak diren proposamenekin mezu bat sortuz, eta feminismoan interesatuta dauden emakume guztien eskura jarritz. Eta, azkenik, gure honetan aurkeztu nahi ditugu proposamen teorikoak osatzen dituzten praktika feministak, ikusarazteko planteamendu abangoardista eta itxuraz apurtzaileenak gure egunerokotasunean isla daukatela.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte



AHALDUNTZE TALDEAK

Talde hauek ikasturte osoan
zehar elkartzen dira



INDARKERARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Hasiera:	urriaren erdialdean
Iraupena:	ikasturte osoa
Eguna:	osteguna
Ordua:	16:30 - 18:30
Hizkuntza:	gaztelania

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean elkartzeko gunea.

Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askartzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek bel-durrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte haien artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko: zer gertatzen zaien jakin, pozarekin konektatu, nork bere gorputza zaindu, desirekin duten harremana ezagutu eta taldearen laguntza jaso.

Antolatzailea: Donostiako Udala

AUTODEFENTSA FEMINISTA

Formatzailea: Naroa Argoitia

Hasiera: irailak 27

Iraupena: ikasturte osoa

Eguna: ostirala,
hamabostean behin

Ordua: 18:00-20:00

Hizkuntza: euskara



Orain lau urte Autodefentsa saioetan bildu ginen talde bat gara eta, geroztik, elkarrekin jarraitzen dugu txoko eder honetan gozatzeko, hasieratik gaudenok eta taldera gehitzen zareten guztiak. Azken denboraldian, dantzan gabiltza saioetan. Geure buruekin konektatzeko gabiltza dantzan, barrenak askatzeko, geure gaitasunak berrindartzeko! Gorputzetik eraldaketak eraikitzen ari gara. Noski, esan beharrik ez dago, ez da dantzaria izan behar gure saioetan aritzeko; izan ere, gorputzak libreki mugitzea baita bilatzen duguna! Honela, dantzaren bidez (Primal dantza bidez, zehazki esanda) bagabiltza geure lekua bilatzen munduan, gozamenari ateak irekitzen, boterea berriz hartzen, emozioak lantzen, maitasun osasuntsua eraikitzen, garena adierazten, garenetik sortzen, intuizioari leku egiten, bizi zentzuak lantzen. Bakoitza bere erritmo eta beharren arabera. Gogoz bazabiltza zeure barnea dantzaren bidez miatzeko, eta hortik berrindartzeko, ba, zure lekua hauxe da orduan!

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkartea

ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza

Hasiera: urriak 16

Iraupena: ikasturte osoa

Eguna: asteazkena

Ordua: 18:30 - 20:00

Hizkuntza: elebiduna

Gure gorputzekin eta emozioekin konektatzeko gunea sortuko dugu, aniztasuna ospatuz. Antzerki-jolasaren bitartez, talde lana zein entzumena landuko ditugu, taldean sortuko diren ikuspegi ezberdinei erreparatuko diegu eta gizarte heteropatriarkalari aurre egiteko estrategiak entseatuko ditugu guztion artean. Ez da beharrezkoa antzerkian aldez aurretik aritua izana eta, egin baduzu ere, esperientzia honek harrituko zaitu! Besteak beste, zapalduon antzerkiaren ezagutzetatik abiatuko gara, hausnarketa feminista bat helburu izanda.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkartea



JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Hasiera: urriaren amaieran

Iraupen: ikasturte osoa

Eguna: asteartea

Ordua: 16:00 - 18:00

Hizkuntza: gaztelania



Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta sozializatzen dituzte banakakoen eta taldearen lorpenak. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.

Antolatzailea: Donostiako Udala

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Formatzailea: Rosa Ugalde, ELKARTU

Eguna: ostirala

Ordua: 11:30 - 13:30

Hasiera: irailak 20

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.

Antolatzailea: Donostiako Udala



MEMORIAREN ZIRRIKITUAK EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAN

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Hasiera: urriak 17

Iraupena: ikasturte osoa

Eguna: ostuguna hilabetean behin

Ordua: 19:00 - 21:00

Hizkuntza: euskara

Azken aldian memoriaren inguruko literatur lan ugari argitaratu dira, baina, memoriari heltzeko askotariko bideak garatu dira. Irakurle-talde honetan memoriaren zirrikituetara hurbilduriko literatur lanak edo saiakerak izango ditugu hizpide, betiere genero-ikuspegiak memoria-ariketa horiek nola zeharkatzen dituen aztertzeko asmoz. Galdera hauetariko zenbait erantzuten aha-legenduko gara irakurketa-talde honetan: zein memoria-ardatz irudikatu dira euskal literatura garaiakidean? Memoria-ardatz horiek zer genero-ikuspegi irudikatu dituzte? Memoria-ardatz horiek irudikatzean, nolako proposamen feministak egin dira? Irakurleok nola eraikitzen dugu geure memoriaren eta pertsonaiaren memoriaren arteko harremana?

Antolatzailea: Donostiako Udala



IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Hasiera: urriak 15

Iraupena: ikasturte osoa

Eguna: asteazkena, hilabetean behin

Ordua: 19:00 - 20:30

Hizkuntza: euskara



Irakurle talde honetan pentsamendu feministan arakatzea izango dugu helburu: batzuetan irakurgai klasikoak irakurriko ditugu, eta beste batzuetan irakurgai garaiakideagoak, baina, betiere irakurgai horiek abiapuntu bat izango dira gaur egun gure testuinguruan eraginkorrak izan daitezkeen diskurtso zen praktika feministak identifikatze aldera. Irakurgaien bitartez, bestalde, gure jarrera zein joera zenbait zalantzan jartzea ere izango dugu helburu, norberak pentsamendu feminista propioa errotze aldera. Irakurgaiak taldekideon artean adostuko ditugu, taldekideen intereseko gaiak landu ahal izateko.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte

VENTANERAS - LA PRECUELA

Formatzailea: Mertxe Tranche

Hasiera: urriak 8

Iraupena: ikasturte osoa

Eguna: asteartea
hilabetean behin

Ordua: 19:00 - 21:00

Hizkuntza: gaztelania

XIX. mendearen bukaeraren eta II. Mundu Gerraren artean, emakume-talde bat, munduko toki guztietatik etorria, Parisen bildu zen, beren talentua garatzeko behar zuten askatasun-giroaren bila. Han, denen artean, munduko literatura guztiz berritzeko ahalegina egin zuten, eta lortu zuten garai hori bikain eta berritzaileenetako bat izatea. Poesia eta prosa idatzi zituzten, bai eta, patriarkatuaren ikuspuntutik, inolako zentzurik ez zuten testuak ere; artikuluak eta aldizkariak argitaratu zituzten, liburu-dendak eta argitaletxeak sortu zituzten, surrealismoaren autore nagusiei lagundu zieten, sexualitateaz eta generoaz gogoeta egin zuten... Soilik II. Mundu Gerrak lortu zuen, bere autoritarismoarekin eta bere suntsipen-lorrazarekin, emakume horiek atzera egitea, beren etxe eta herrietara bueltatzea, Paris uztea. Baina ondare bat utzi zuten, eta orain aukera dugu haren arrastoari jarraitzeko eta ezagutzeko.

Ikastaroaren bigarren partean, emakumeen literaturan barrena jarraituko dugu, Paris eta modernismoa baino aurrerago eginez. XX. mendeko bigarren erdiko idazleak eta gauzak kontatzeko modu berriak izango ditugu bidelagun.

Antolatzailerak: Donostiako Udala

VENTANERAS

Formatzailea: Mertxe Tranche

Hasiera: urriak 10

iraipena: ikasturte osoa

Eguna: osteguna,
hamabostero

Ordua: 19:00 - 21:00

Hizkuntza: gaztelania

“**Berri-berriak**” izeneko lantegian aztertuko ditugun liburuak XXI. mendean idatzitakoak izango dira, edozein kultura eta herrialdeetakoak, betiere gaztelaniaz argitaratuak. Oraingoz bestelako liburuak izango dira, beste ikuspegi baten arabera hautatuak; izan ere, orain arte, lantegi guztiak tematikoak edo geografikoak izan dira. Orain, ikuspegia kronologikoa izango da, pentsatuz emakume idazle berriak eta haien kezkek ezagutzea lagungarri izango zaigula emakumeok gaur egun ditugun eztabaiden inguruan hobeto hausnartzeko; horixe baita, azken batean, parte-hartzaileek lantegitik gehien baloratzen duten alderdia.

Antolatzailerak: Donostiako Udala



BATUKADA FEMINISTA

Formatzaileak: Ainara Sarasketa eta Arantxa Vicedo

Hasiera: urriak 9

Amaiera: abenduak 18

Eguna: asteazkena
hamabostean
behin

Ordua: 18:30 - 20:30

Hizkuntza: elebiduna



Jabekuntza ardatz eta perkusioa tresna bezala, talde lanean batukada feministak esan nahi duena landu, ulertu eta praktikara eramango dugu.

Musika oinarririk izan beharrik gabe, erritmo ezberdinak ikasiko ditugu eta dinamika ezberdinekin elkar ezagutu, talde izaera landu eta gozatu.

Ikastaroaren ondoren, batukada feminista sarearen parte izan eta kaleko irteeretan erritmoa jarri ahalko duzu.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte

XAKEA

Formatzaileak: Eli Agirre eta Leire Cruz

Hasiera: urriak 3

Amaiera: ikasturte osoa

Orduak: **Xake 0** (Hastapen maila)
asteartea
18:30 -19:30

Xake 1 (1.maila)
asteartea
19:30 -20:30

Xake 2 (2.maila)
osteguna
18:30 -19:30

Hizkuntza: elebiduna

Xakean jokatzeko ikasteko jakin-mina al daukazu? Betitik interesatu izan zaizu baina ez duzu jokatzeko lagunik eduki? Klase hauen helburua da, batetik, lehen urratsetatik abiatzea, eta bestetik, xakean baldin badakizu, goragoko mailetan trebatzea, ilusio berdina daukaten emakumeekin joka dezazun.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte



EDERLEZI ABESBATZA

Donostiako Emakumeen Etxeko abesbatzak, "Ederlezi" Emakumeen Abesbatzak, adin, jatorri eta esperientzia desberdineko emakumeak batzen ditu. Abestuz esperimentatzen eta partekatzen dugu musikak duen boterea, kontzientziak mugitzeko eta geure buruak ahalduntzeko, energia eraldatzaileak sortuz. Errepertorioak munduko folkloreko abesti polifonikoak hartzen ditu barnean, eta baita emakumeok idatzitako edota sortutako abestiak ere.

Formatzailea: Bettina Aragon

Eguna: ostirala

Ordua: 19:30 - 21:00

Hasiera: urriak 4

Iraupena : ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkartea

KLOWNA

Formatzailea: Bea Egizabal

Eguna: astelehena

Ordua: 18:30 - 20:00

Hasiera: irailak 30

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna

*Emakume hori barrez ari da beti Ez da arduratsua izango.
Emakume horrek ez du inoiz barre egiten..... Ozpinduta egongo da.
Emakume horrek guztiarekin egiten du barre..... Tuntun samarra izango da.
Emakume horrek ez du ezergatik ere barre egiten Handiustea izango da.
Emakume horrek grazioso dela uste du..... Baina emakumeak ez dira umoregile onak.
Gustoko dut emakume horren umorea..... Ez du emakume bat ematen.*

Arduragabeak, ozpionduak, tuntunak, handiusteak, umoregile kaskarrak, emakumeak ez diruditenak... ongi etorriak izango dira tailer honetara. Barre egingo dugu elkarrekin, hasteko eta behin, geure buruari egingo diogu barre. Sudur gorri batekin kamuflatuta anonimotasuna mantenduko dugu.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkartea

Arreta eta Bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako balibideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 – 21:00
Hitzordurik gabe

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Astean Zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak... inguruko aholkularitza.

Egilea:
Ana Lopez eta Juana Aranguren

Astelehena
16:30 - 18:30
Hitzorduarekin

Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-Hartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerriartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alar-guntasuna... Tramiteak egiteko laguntza.

Egilea:
Arrats Elkarte

Asteazkena
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan

 943 48 34 70

Lege Aholkularitza

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerritartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen Elkarte

Asteazkena
19:00 - 21:00
Hitzorduarekin

Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu? Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Rosa Ugalde

Asteartea
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin

Norbanakoaren Jabekuntzarako Gunea

Aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragilez baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Maite Santamaria

Asteazkena
10:00 - 13:00
Hitzorduarekin

Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
Lahia Nahia
Sexologia Elkarte

Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduarekin

Aholkularitza, Laguntza Taldea

Errotutako jarrerak eta erruduntasun sentimenduak landu nahiz aldatzeko. Indarkeriari aurre egin eta autonomia areagotzeko.

Egilea:
Aizan

Asteartea,
hamabostero
14:30 -16:00
Hitzorduarekin

“Iguálate” Ikasketen Homologazioa

Atzerrian egindako ikasketen tituloak balioztatzeko aholkularitza eta laguntza.

Egilea:
Bidez Bide

Osteguna
10:00 - 12:00
Hitzorduarekin

+ INFO

Helbidea:

Okendo 9, 20004 Donostia

Telefonoa:

943 48 34 70

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00

E-mail:

info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

Web:

donostiakoemakumeenetxea.com



Asociación Casa de las Mujeres



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Berdintasun Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Igualdad